



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xendazaletasun atala
109. zka. 5 euskal hiribururen 20. Zeharkaldi Handia	Iurreta-Eibar 2014-11/22-23/

Adiskide xendazaleok:

Aurtengo azken etapan Gipuzkoako lurretara iritsiko gara. Irteera Iurretan izango dugu eta Momoiotioko San Juan basilizaraino igoko gara, balkoi ederra Durangaldea begiesteko. Handik Garai herritxoraino iritsiko gara. Gune honetatik abiatuta gure zeregina mendi-lerroraino igotzea izango da eta zehatzago esanda Iturzurigana-raino. Goragune lau honetan bi gailur daude.

Hegoaldera dagoena Iturzurigana (862m) da eta bere inguruan dago izen bereko trikuharria. Ipar-ekialdera Probazelaiburu (853 m) gailurra dago, mendi-lepo (840m) txiki batek banatua. Goragune horretatik ekialdera Zengotitagana (812m) dago, eta haren goratasunak Trabakua (405m) gainean bukatzen dira.

Kota horiek guztiak Oiz mendikoak dira, oroitzapen tristeko mendia, gogoan izanda 1985eko otsailaren 19an Madril-Bilbo egiten ari zen Iberiaren Boeing bat, EITBren antena jo ondoren, mendebaldeko aurpegiaren kontra txikitu zela.

Trabakuan ekingo diogu bigarren zatiari, Asuntza mendi-leporaino joateko, eta handik Urko gailurreraino eramango gaituen mendi-lerrora iritsiko gara. Eta handik behera Eibarreraino, bertan bukatzen baita etapa.

Urko (794m) gailurak Ermua eta Eibar banatzen ditu, eta bi udalerrietako punturik garaiena da. Gailur honek Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeak ere banatzen ditu, Asuntza (495m) mendi-lepo zabalaren inguruetaraino.

1947. urtean, mendi hau ongi ezagutzen zuen Juan Etkezarragak gurutzea jarri zuen Urkon. Haren arabera, Urko gailurra dagoeneko mendigunearen izena izango litzateke, eta punturik gorena *Kurutzeke txuntxurra*, horrela garbi geratuz iraganean ere izango zela tontorrean beste gurutze bat. Eibar aldean, Ixuaranzko maldan, gailur honek badu aurrez beste gailurtxo bat, Urkoko bigarren gana (732m) deitua.

Xendazaleok, animo, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Iurreta-Eibar

Beharrezko denbora		5,40	
Goranzko desnibel metatua		1.085 metro	
Beheranzko desnibel metatua		1.050 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia		20,3 50 metro	
 Inguru nea	1	 Orientazioa	2
		 Joan-etorria	1
		 Esfortzua	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:15
Irteera-ordua	07:20
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea
Prezioa	29 euro

Izena emateko azken eguna: 2014-11-20ko 12:00ak

Oharra: a/Ez badago gutxieneako parte-hartzailerik, irteera bertan behera geratuko da.
b/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:

alahuerta@kutxabank.es/jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-Lorenzo Urretabizkaia